



Biba gorriac!

XIX. mendeko kontuak,
Le Réveil Basque astekariak onduak

Imanol Murua Uria

Upaingo, 51

978-84-9172-456-8

2025 - 144 or. - 13 x 19 cm

16 €

Xurien eta gorrien arteko konfrontazioak Euskal Herrian, Frantziako III. Errepublikako borroka politikoak, Sadi Carnot presidentearen hilketak eta haren hiltzailearen gillotinatzea, Eiffel dorrearen eraikitzea, aurreneko Maiatzaren Lehenak, Kaliforniako euskaldunen gorabeherak...

Le Réveil Basque (1886-1894) aldizkari errepublikazale elebidunaren irakurle euskaldunek euren hizkuntzan jaso zituzten berriak astez aste, apur bat geroago *Eskualduna* (1887-1944) eta *California'ko Eskual Herria* (1893-1898) astekarietako irakurleek bezala. Euskaraz jardun zuten lehenengo kazetari haiek orduko mundua nola aldatzen ari zen kontatu zieten astero euren irakurleei, zortzi urtez.

Kazetari lan haien gaineko kazetari lana da liburu hau, Paueko erredakzio laiko eta errepublikazale aitzindari hartatik XIX. mende bukaerako mundu aldakor horri astero egin zizkieten erretratuetan oinarritutako kontakizuna.



IMANOL MURUA
(Zarautz, 1966)

Unibertsitateko irakaslea, kazetaria eta idazlea da. Euskal Herriko Unibertsitatean Informazio Zientzietan lizentziatu zen 1989an, eta kazetari aritu zen geroztik *Argia*-n, *Euskaldunon Egunkaria*-n, *Jakin*-en eta *Berria*-n. Rikardo Arregi Saria jaso zuen 1996an, 2006an eta 2010ean, eta Argia Saria 2008an. Hainbat libururen egile da: besteak beste, *Suetena Belfasten* (1996, Humberto Unzueta-rekin batera), *Palestina Zauritua* (1998), *Loiolako Hegiak* (2010), *Ekarri Armak* (2015) eta *Egunero behar genuen* (2022).

Doktore-titulua eskuratu zuen 2014an, eta Kazetaritzako irakaslea da EHU-n 2015etik. Euskarazko kazetaritzaren hastapenei buruzko hainbat ikerketa lan argitaratu ditu, hala nola euskarazko lehen kronikei buruz (2023), *California'ko Eskual Herria*-ren kazetaritza ereduari buruz (2022), eta *Le Réveil Basque*-ren kazetaritza politikoari buruz (2024).

